EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
Kultura Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA
Viceconsejería de Cultura

K-16/2025

KONTRATUAREN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

KULTURKLIK: marka-nortasuna definitzea eta web-diseinua berritzea, epealdia 2025-2026

1. SARRERA

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitekoen artean dago euskal kulturaren sustapena, eta xede horrekin sortu zen 2010. urtean KULTURKLIK – Euskal Kulturaren Ataria (KULTURKLIK, aurrerantzean). Kulturaren Euskal Behatokia da KULTURKLIK ataria kudeatzeko eginkizuna duen unitatea, eta Kulturako sailburuordea dagokio “Kulturaren Euskal Behatokiaren eta Kulturklik proiektuaren zuzendaritza” (389/2024 Dekretua, 10.1 d) art.). KULTURKLIK, bestalde, «www.euskadi.eus» webgune komunean integratuta dago (EAEko Administrazio Publikoaren atari-sarea eta bertan sartutako gainerako atari-sarea identifikatzeko domeinua), gaiaren eta xede-taldearen araberako atari bezala (91/2023 Dekretua, Lehenengo xedapen gehigarria).

Euskal kulturari buruzko erreferentziazko webgunea da KULTURKLIK; funtsezko pieza da kultur eskaintza eta sorkuntza zabaltzeko lanean, bai eta kultur sektorea osatzen duten eragileen prestakuntza eta profesionalizazioa sustatzeko lanean ere. Publiko orokorrari nahiz profesionalari ematen dio zerbitzua, eta, horretarako, bi atari ditu: bata, Kulturklik, herritar guztiei zuzendua (www.kulturklik.euskadi.eus/hasiera/) eta bestea Kulturklik Pro, kultur profesionalei zuzendua (www.kulturklik.euskadi.eus/profesionala/)[1].

Egitasmo arrakastatsua da KULTURKLIK, herritarrei, kultur eragileei eta erakunde publikoei eskaintzen dien zerbitzuarekin, eta arrakasta horren ebidentzia dira, besteak beste, honako adierazle hauek: atariaren erabilera-datuak (1.801.210 erabiltzaile eta 5.172.083 orri ikusi 2024. urtean, goranzko joera argiarekin); programatzaile txikiek “bidali zure ekitaldia” formularioaren bidez helarazitako informazioa (1.057 ekitaldi 2024. urtean); buletinera harpidetutako pertsona-kopurua (3.796 pertsona 2024. urtean); KULTURKLIKen edukiak euren webguneetan bistaratzen dituzten erakundeak (EKE, Kulturaraba, Urnietako Udala, MuseoTIK) edo KULTURKLIKen euren edukiak bistaratzeko prozesu automatikoak ezarri dituztenak (EKE, Bertsozale Elkartea, Donostia Kultura, Gasteizko Udala, EMSIME, Getxo Kultura). Gainera, Kulturaren Euskal Behatokiaren informazio-iturri gisa finkatu da KULTURKLIK azken urtean, eta hainbat txosten-serie argitaratzen ditu Behatokiak KULTURKLIKeko datuetan oinarrituta. Bukatzeko, aipatu beharra dago euskadi.eus sarea osatzen duten atarien artean, erabiltzaile gehien dituen atarietako bat dela KULTURKLIK (2024. urtean, erabiltzaile gehien izan zituen 3. ataria izan zen, euskadi.eus atari orokorraren eta Osakidetzaren atzetik).

KULTURKLIK markaren gaur egungo irudia 2014koa da. Hamarkada luze honetan, KULTURKLIKen hazkunde-prozesua egonkorra eta etengabea izan da, eta garrantzitsua da marka bera ere proiektuarekin batera haztea; markari sendotasuna ematea eta behar bezala posizionatzea marka-estrategia definitu baten arabera. Era berean, urte hauetan guztietan, aldatuz joan dira bai diseinu-joerak, eta baita gailu digitalen erabilera-ohiturak ere. Horren guztiaren ondorioz, Kulturaren Euskal Behatokiak KULTURKLIKen marka-nortasuna definitzeko eta markaren eta atariaren diseinua eguneratzeko beharra identifikatu du.

Partekatzen duten azpiegitura teknikoa dela eta, KULTURKLIKen web birdiseinuak eragina izango du SAREA (www.sarea.euskadi.eus/hasiera/) atariaren diseinuan, eta Kultura Sailburuordetzaren interesekoa da SAREA atariaren web diseinua, bere osotasunean, KULTURKLIKen birdiseinutik eratorritako aldaketetara egokitzea.

[1] Dokumentu honetan, KULTURKLIK baliatuko da, letra larriz, proiektuari edo aldi berean bi atariei erreferentzia egiteko; atari bakoitzaren izena, berriz, letra xehez idatziko da: Kulturklik (herritarrei zuzendua) eta Kulturklik Pro (profesionalei zuzendua).

2. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da KULTURKLIKen marka-nortasuna definitzea eta KULTURKLIKen web-diseinua berritzea marka horrekin bat eginez.

Zehazki, honako hauek dira kontratu honen helburuak:

- KULTURKLIKen identitatea eta marka-estrategia definitzea, xede izanik KULTURKLIK posizionatzea kulturarako eta kulturako profesionalentzat interesgarriak diren baliabideetarako sarbide gisa, eta, baita ere, kulturaren eremuko politika publikoen jardunbide egokien nazioarteko erreferente gisa. Era berean, kontuan hartu beharko da KULTURKLIK markaren eta Eusko Jaurlaritzaren markaren arteko harremana.
- KULTURKLIKen web-diseinua berritzea, bat eginez definitutako marka-nortasun eta -estrategiarekin, eta atariaren behar eta erabilerei erantzuna emanez. Diseinua eguneratzearen eta modernizatzearen baitan daude, era berean, funtzionalitate berriak edo egungoen hobekuntzak. Halaber, SAREA atariaren birdiseinua ere sartzen da prestazioan, KULTURKLIKen birdiseinutik eratorritako aldaketetara egokitzeko baino ez.

3. EGIN BEHARREKO LANAK

3.1. Marka-nortasuna definitzea

Enpresa esleipendunak KULTURKLIKen marka-identitatea definitu beharko du, KULTURKLIKen funtsa eta garrantzia ematen diona identifikatzeko, xede izanik KULTURKLIKen balioa transmititzen eta bere audientziekin konektatzen lagunduko duen marka-estrategia bat garatzea. Enpresa esleipendunak marka-identitate hori islatu beharko du marka-eskuliburu batean.

Marka definitzeko orduan, gutxienez, honako hauek hartu beharko ditu aintzat enpresa esleipendunak:

- KULTURKLIK osatzen duten bi atariak (Kulturklik: herritarrei zuzenduta; Kulturklik Pro: kultur profesionalei zuzenduta), eta atari bakoitzak eskaintzen dituen zerbitzuak (ikus I. Eranskina).
- KULTURKLIK kudeatzeko kontratuaren (K-26/2024) esleipena duen enpresako lantaldearekin eta Kultura Sailburuordetzako taldearekin egindako elkarrizketen ondorioak. Elkarrizketa edo lan-jardunaldi horiek prestazioaren parte dira, eta enpresa esleipendunak dinamizatu behar ditu.
- Herritarrei egindako inkestaren eta herritarrekin egindako *focus group*aren emaitzak. Kontratazio-organoak egingo ditu inkesta eta *focus group*a, eta kontratua formalizatzean emango zaizkio emaitzak enpresa esleipendunari.
- Profesionalei luzatutako galdetegiaren eta profesionalekin egindako elkarrizketen emaitzak. Kontratazio-organoak egingo ditu galdeketa eta elkarrizketak, eta kontratua formalizatzean emango zaizkio emaitzak enpresa esleipendunari.

- KULTURKLIK marka eta Eusko Jaurlaritzaren marka batera erabiltzeko modua, eta, beharrezkoa balitz, beste proiektu, ekimen edo eragile publikoen markekin batera ere.

Marka-eskuliburuak, gutxienez, alderdi hauek landu beharko ditu:

- Markaren izaera: balio estrategikoak edo marka-atributuak, balio-proposamena, marka-kontakizuna, posizionamendua, mezuak, marka-*claim*a eta izena.
- Markaren unibertso bisuala: logotipoa, koloreak, tipografia, argazki-estiloa, ikonografia eta markaren izaera islatuko duten gainerako ikusizko elementuak.
- Markaren aplikazio grafikoa, gutxieneko euskarri edo esparru hauetan: aurkezpenak egiteko txantiloia, sare sozialetarako grafismoa (kontuaren irudi nagusia, atzeko irudia, sareetan argitalpenak egiteko txantiloia) eta posta elektronikorako sinadura.

Markaren identitatea definitzeko prozesua kontratazio-organoarekin baliozkotu beharko da horretarako deitutako jarraipen-bileretan. Kontratazio-organoak, gehienez ere, hiru aldiz eskatu ahal izango ditu aldaketa nabarmenak enpresa esleipendunak aurkeztutako proposamenetan.

Kontratua bukatzean, enpresa esleipendunak honako hauek entregatu beharko ditu:

- Marka-eskuliburua.
- Markaren ikusizko elementuen fitxategiak bektore-formatuan eta bereizmen handiko formatu ez bektorialean.
- Markaren aplikazio grafikoaren fitxategi editagarriak (eta pdf formatuan, hala badagokio).

3.2. Web-diseinua berritzea

3.2.1. KULTURKLIK

Enpresa esleipendunak KULTURKLIKen web-diseinua berritu beharko du osorik, bai Kulturklik atariarena, bai Kulturklik Pro atariarena ere, zehaztutako marka-identitatearen arabera. Prestazioaren atal honen helburua diseinu berria definitzea baino ez da, berorren inplementazio informatikoa ez baita kontratu honen parte.

Diseinu berriak, definitutako marka-identitatea islatzeaz gain, egungo diseinuaren aldean, hoberako bilakaera ekarri beharko tu, baita funtzionaltasunei dagokienez ere. Diseinu berriak, inplementatuta dagoenean, tresna irisgarriago, eraginkorrago eta erakargarriago bihurtu beharko du KULTURKLIK eta, era berean, atariko eduki eta zerbitzuei hedapen handiagoa ematen lagunduko beharko du

KULTURKLIKen web-diseinua berritzeari ekiterakoan, enpresa esleipendunak alderdi hauek hartu beharko ditu kontuan:

- **Bateragarritasuna lehendik dauden edukiekin eta zerbitzuekin**
  Diseinu berriak behar bezala bistaratu behar ditu eduki-kudeatzailean jada alta emanda dauden edukiak, elementu guztiekin: izenburua, irudia (540x360) –eta argazki-oina, baldin badago–, deskribapena eta “Laburrean” fitxa (II. Eranskinean

zehazten dira KULTURKLIKen zabaltzen diren eduki mota guztiak). Lan-prozesuan kontratazio-organoak kontrakoa erabaki ezean, birdiseinuak ez ditu KULTURKLIKek gaur egun eskaintzen dituen zerbitzuak edo funtzionalitateak ezabatu behar.

- **«www.euskadi.eus» webgune komunaren ezaugarrietara egokitzea**
  - KULTURKLIKen diseinu berriak Euskadi.eus-eko edukiak, orriak eta aplikazioak garatzeko betebeharrak errespetatu beharko ditu, batez ere puntu hauetan: web-irisgarritasuna (AA betetze-maila), hizkuntza-irizpideak eta SEO.
  - KULTURKLIKek askatasuna dauka webgunea diseinatu eta egituratzeko orduan, baina, «www.euskadi.eus» webgune komunean integratuta dagoen gaikako ataria den heinean, diseinu berriak derrigor jaso beharko ditu Ente eta gaikako atarientzako estilo-liburuan zehaztutako elementuak.

- **Informazio-arkitektura argia eta logikoa**
  Kulturklik eta Kulturklik Pro atarien oinarrizko egiturak (berau osatzen duten elementuak nola antolatzen diren) nabigatzeko erraza eta intuitiboa izan behar du, eta zentzua eta koherentzia gorde.

- **Diseinu moldagarria**
  Web-diseinua behar bezala bistaratu behar da hainbat bereizmeneko gailuetan. Kulturklik atarirako, orrien %74 inguru telefono mugikorretik ikusten dira eta %25 mahaigainetik; Kulturklik Pro-ren kasuan, ordea, orrien %65 inguru mahaigainetik ikusten dira eta %35 telefono mugikorretik.

- **Erabiltzailea ardatz duen diseinua**
  Erabiltzaileek webgunea nola erabili eta ulertuko duen izan beharko da diseinu berriaren arretagune nagusia, haien beharrei eta espero dutenari erantzun behar baitie. Gainera, diseinuak erabiltzaileak webgunearekin elkarreraginean egiten dituen prozesuak optimizatu beharko ditu (zenbat eta errazagoak izan, hobe). Atal honetan, halaber, erabiltzailearen esperientzia hobetzen lagunduko duten funtzionalitate berriak ezartzea aurreikusten da. Azken finean, erabiltzaileek erabili nahiko duten webgune bat diseinatzea da helburua.

- **Ikusizko diseinua eta estiloaren definizioa**
  Estilo bisualak, edozelan ere definitutako marka-identitatearekin bat etorri behar duenak, zaindua eta erakargarria izan behar du, eta ondo ezkondu behar du kulturaren eta sorkuntzaren mundu erreferentzialarekin.

- **Kontratazio-organoaren eskaerak**
  Enpresa esleipendunak erantzun egin beharko dio organo kontratatzaileak web-diseinuaren inguruan emango dion eskaera-zerrendari.

- **Egile-eskubideak**
  Diseinuan baliatuko diren sormen-baliabideak (tipografia, irudiak, ikonoak, etab.) prestaziorako berariaz sortuak izan ez badira, kode irekikoak edo jabari publikokoak izan beharko dute, edo Creative Commons lizentziapeko baliabideren bat bada, behar bezala aitortu beharko da lizentzia hori. Lizentzia bat erostea eskatzen duen edozein baliabide erabili nahi badu enpresa esleipendunak, kontratazio-organoak onartu beharko du aldez aurretik.

Web-diseinua berritzeko prozesua kontratazio-organoarekin baliozkotu beharko da horretarako deitutako jarraipen-bileretan. Kontratazio-organoak, gehienez ere, hiru aldiz eskatu ahal izango ditu aldaketa nabarmenak enpresa esleipendunak aurkeztutako proposamenetan.

Kontratua bukatzean, enpresa esleipendunak honako hauek entregatu beharko ditu:

- Kulturklik eta Kulturklik Pro atarien arkitektura osatzen duten orrialde guztien diseinua (buletina barne Kulturkliken kasuan), salbuespen hauekin: formularioen kasuan, nahikoa izango da atari bakoitzeko formulario bakarra diseinatzea, guztien artean osatuena; eta diseinuak orrialde bikiak[2] baditu, nahikoa izango da bat diseinatzea.
- Gehienez ere, “Edukia” motako 10 orrialde diseinatzea atari bakoitzerako. Orri hauek eduki mota desberdinek dituzten aldaera guztiak erakusteko balio behar dute (ikus II. Eranskina).
- Estilo-gida edo UI Kit delakoa, hau da, web-diseinuan erabilitako ikusizko baliabideen eta baliabide funtzionalen katalogoa.

Orrien diseinuak bi modu hauetakoren batean entregatuko dira

- HTML-n maketatuta, atari bakoitzerako CSS estilo-orriarekin batera, osagai eta egoera guztien zehaztapenekin, eta erabilitako baliabide grafikoen fitxategi digitalekin (irudiak, ikonoak, etab.).
- Interfazea eta interakzioa diseinatzeko erabilitako programaren fitxategiak, betiere, elementu eta osagaiei aplikatutako *grid*a, irudiak, ikonografia, propietateak eta estiloak identifikatu eta ateratzeko aukera ematen badute, gerora ataria funtzionalki ezartzeko estilo-orriak sortzea eta definitzea errazteko.

3.2.2. SAREA

KULTURKLIKek eta SAREAk baliabide berberak partekatzen dituzte, eta, beraz, baliabide bakoitzari lotutako html fitxategiak (fitxak eta miniaturak) berdinak dira[3]; hau da, SAREAk eta KULTURKLIKek fitxa eta miniatura berak bistaratzen dituzte, eta, beraz, diseinua aldatzeak biei eragiten die.

Ondorioz, enpresa esleipendunak SAREAren gaur egungo diseinua egokitu beharko du, hala behar denean, KULTURKLIKen birdiseinuak SAREAren fitxen eta miniaturen bistaratzean eragindako aldaketetara egokitzeko, xede izanik SAREAren diseinu homogeneoa bermatzea.

Kontratua bukatzean, KULTURKLIKen birdiseinuak baldintzatutako SAREA atariko orrien diseinuak entregatu beharko ditu enpresa esleipendunak, 3.2.1 atalean aurreikusitako moduetakoren batean.

[2] “Orri bikiak” dira, adibidez, Kulturklik Pro atariaren gaur egungo diseinuaren sektorekako *subhome*-ak: Musika *subhomea* eta Ondarea *subhomea*

[3] Ikus, adibidez, “Miñan” antzezlanaren fitxa Kulturkliken eta Sarean.

4. LANTOKIA

Kontratuaren zereginak enpresa esleipendunak horretarako aurreikusi dituen lokaletan egingo dira, baina inoiz ere ez Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren bulego edo instalazioetan.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren datan.

MIREN PEREZ EGUIREUN - 78936755L

Digitalki sinatuta norengandik: MIREN PEREZ EGUIREUN - 78936755L
Data: 2025.02.12 13:54:48 +01'00'

Miren Perez Eguireun
Web kudeatzailea
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

I. ERANKISNA: KULTURKLIKek ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUAK

KULTURKLIKek herritarrei zein kultura profesionalei eskaintzen die zerbitzua, bi atariren bidez:

- **Kulturklik** (https://www.kulturklik.euskadi.eus/hasiera/), herritarrei oro har zuzendutako ataria. Euskal Herriko kultura-jardueraren, sortzaileen eta haien lanen zabalkundea egitea du helburu.
- **Kulturklik Pro** (https://www.kulturklik.euskadi.eus/profesionala/), kultur sektoreetako profesionalei zuzendutako ataria, zeintzuei eskura jartzen dizkien sektoreka sailkatutako baliabideak eta tresnak.

Bai atari orokorra eta bai profesionala, kanpo-iturrietatik eskuratutako edukiekin elikatzen dira ia osorik ("Bereziak" izan ezik, eduki horiek propio sortzen baitira), gaurkotasunak agintzen duen maiztasunez. Eranskin honetako 1. eta 2. puntuetan zehazten da zeintzuk diren atari bakoitzak eskaintzen dituen zerbitzuak.

Gainera, azken urteotan, kulturari buruzko datu eguneratuen berehalako iturri gisa finkatu da Kulturklik. Zerbitzu hau eranskin honetako 3. puntuan deskribatzen da.

1. Kulturklik

1.1. Agenda

Kultur jarduerak biltzen ditu agendak, eta egunero gaurkotzen da, irizpide hauek betetzen dituzten edukiekin:

- Euskal Autonomia Erkidegoan programatutako kultur ekitaldiak, aurrez aurre zein online
- Euskal kultur eragileek Nafarroan eta Iparraldean programatutako kultur ekitaldiak, aurrez aurre zein online

Urtean, 22.000 ekitaldi inguru argitaratzen dira Kulturkliken.

Agenda-zerbitzuak, bilatzaileaz gain, *widget* bat eskaintzen du agendako gertaerak beste webgune batzuetan erakusteko, eta, duela gutxi arte, agendako aplikazio bat ere bai[4].

Ikusi hemen Kulturklik atariko "Agenda"

1.2. Albisteak

Eguneroko maiztasunarekin argitaratzen dira interes orokorreko kultur informazioak atari orokorrean. EITB kenduta, gainerako komunikabide jeneralistak ez dira informazio-iturri albisteetarako edukiak eskuratzeko orduan.

Urtean, 1.000 albiste inguru argitaratzen dira Kulturkliken.

Ikusi hemen Kulturklik atariko "Albisteak"

[4] Dagoeneko ez dago deskargatzeko moduan, zaharkituta geratu baita, baina webaren diseinu berriarekin *app*-a berreskuratzea da asmoa.

1.3. Bereziak

"Bereziak" dira KULTURKLIKerako berariaz sortutako eduki bakarrak. Kultur sektoreko eragileei egindako elkarrizketak dira (ekitaldi bati buruz, sormen-lan beti buruz, egitasmo bati buruz, sektore bati buruz, etab.).

Urtean, gutxienez, 36 "Berezi" argitaratzen dira Kulturkliken. Eduki hauek Kulturklik Pro atarian ere bistaratzen dira.

Kulturkliken,"Albisteak" ataleko "elkarrizketak" azpiatalaren barruan erakusten dira "Bereziak", baina, bertan, ez dago modurik Bereziak beste iturri batzuetatik hartutako elkarrizketetatik erraz bereizteko.

1.4. Sorkuntzak

Asteroko maiztasunarekin argitaratzen dira euskal kultur ekoizpenen fitxak, betiere, sorkuntza mota hauetakoren bati badagozkie: liburua, diskoa, pelikula, antzezlana eta dantza-lana.

Urtean, 1.000 sorkuntza-fitxa inguru argitaratzen dira Kulturkliken. Eduki hauek Kulturklik Pro atarian ere bistaratzen dira.

Ikusi hemen Kulturklik atariko "Sorkuntzak"

1.5. Bidali zure ekitaldia

Kulturkliken agendara ekitaldiak bidaltzeko atea zabalik dute interesdunek. Ekarpen horiek aplikaziora iristen dira zuzenean eta, argitaratu baino lehen, editore-taldeak berrikusi egiten dira.

Urtean, 1.000 ekarpen inguru jasotzen dira "Bidali zure ekitaldia" formulario bidez.

Ikusi hemen Kulturklik atariko "Bidali zure ekitaldia" formularioa

1.6. Buletina

Astean behin, KULTURKLIK buletina bidaltzen da, webgunean jasotako edukien hautaketa batekin: lau agenda-ekitaldi, hiru albiste, bi sorkuntza eta profesionalentzako hiru eduki. Buletinera harpidetza Kulturkliketik egiten da, formulario honen bidez.

Ikusi hemen azken "Kulturklik buletina"

1.7. Bannerrak eta nabarmenduak

Hasiera-orrian nabarmendutako edukiak egunero aldatzen dira, atariak zabalkunderako duen gaitasuna modu orekatuan banatzeko eta atariari dinamismoa emateko. Atalkako hasiera-orrietan ere (agenda, albisteak, sorkuntzak) nabarmendutako edukiak aldiro aldatzen dira, baina bestelako maiztasunez.

2. Kulturklik Pro

2.1. Deialdiak

Deialdien araberako maiztasunarekin, kulturarekin zerikusia duten eta euskal kultur sektorea onuradun izan dezaketen deialdien berri ematen da: dirulaguntzak, sariak, bekak, egonaldiak, lehiaketak, parte-hartzerako deialdiak, etab.

Urtean, 800 deialdi inguru argitaratuko dira Kulturklik Pro-n.

Ikusi hemen Kulturklik Pro atariko "Deialdiak"

2.2. Agenda profesionala

Eskaintzaren araberako maiztasunarekin, kulturarekin zerikusia duten prestakuntza-jardueren eta bestelako jardunaldi profesionalen berri ematen da, dela euskal eragileek antolatutakoak (aurrez aurre edo online), dela Euskal Herrian egiten direnak.

Urtean, 500 ekitaldi profesional inguru argitaratzen dira Kulturklik Pro-n.

Ikusi hemen Kulturklik Pro atariko “Agenda profesionala”

2.3. Bereziak

“Bereziak” dira KULTURKLIKerako berariaz sortutako eduki bakarrak. Kultur sektoreko eragileei egindako elkarrizketak dira (ekitaldi bati buruz, sormen-lan beti buruz, egitasmo bati buruz, sektore bati buruz, etab.).

Urtean, gutxienez, 36 “Berezi” argitaratzen dira Kulturklik Pro-n. Eduki hauek Kulturklik atarian ere bistaratzen dira.

Ikusi hemen Kulturklik Pro atariko “Bereziak”

2.4. Sorkuntzak

Asteroko maiztasunarekin argitaratzen dira euskal kultur ekoizpenen fitxak, betiere, sorkuntza mota hauetakoren bati badagozkie: liburua, diskoa, pelikula, antzezlana eta dantza-lana.

Urtean, 1.000 sorkuntza-fitxa inguru argitaratzen dira Kulturklik Pro-n. Eduki hauek Kulturklik atarian ere bistaratzen dira.

Ikusi hemen Kulturklik Pro atariko “Sorkuntzak”

2.5. Argitalpenak

Argitalpen-eskaintzaren araberako maiztasunarekin, kulturarekin zerikusia duten argitalpenen berri ematen da (txostenak, azterlanak, artikuluak eta intereseko bestelako irakurgaiak.).

Urtean, 100 argitalpen inguru argitaratzen dira Kulturklik Pro-n.

Ikusi hemen Kulturklik Pro atariko “Argitalpenak”

2.6. Albisteak

Eguneroko maiztasunarekin argitaratzen dira interes profesionaleko kultur informazioak atari profesionalean. EITB kenduta, gainerako komunikabide jeneralistak ez dira informazio-iturri albisteetarako edukiak eskuratzeko orduan.

Urtean, 200 albiste inguru argitaratzen dira Kulturklik Pro-n.

Ikusi hemen Kulturklik Pro atariko “Albisteak”

2.7. Direktorioa

Euskal Herriko kultura-baliabideen zerrenda dinamikoa da direktoria (batez ere kultura-ekipamenduak eta kultura-eragileak).

Urtean, 50 baliabide inguru gehitzen dira Kulturklik Pro-n.

Ikusi hemen Kulturklik Pro atariko “Direktorioa”

2.8. Bannerrak eta nabarmenduak

Sektorekako hasiera-orrietan nabarmendutako edukiak aldiro aldatzen dira, atariak zabalkunderako duen gaitasuna modu orekatuan banatzeko eta atariari dinamismoa emateko.

3. Datu-iturria

Bi atariak elikatzen dituzten edukiak (II. Eranskinean zehaztuta daude) CMS aplikazio batetik kudeatzen dira eta, bertan, eduki bakoitzari lotutako informazio asko katalogatu eta sailkatzen da. KULTURKLIKek, azken finean, kontsulta-aplikazio bakar batean egituratzen ditu Euskal Herriko ekosistema kulturalaren erakusketa, sorkuntza eta baliabideei buruzko datuak.

Ildo horretatik, Kulturaren Euskal Behatokirako informazio- eta analisi-baliabide gisa finkatu da KULTURKLIK, datu eguneratuak berehala kontsultatzeko aukera ematen baitu. 2023az geroztik, Behatokiak bi txosten-lerro ditu (politika publikoen arloan erabakiak hartzeko balio handikoak), KULTURKLIKetik ateratako datuekin eginak:

- EAEko programazio kulturalaren azterketa. Hiru hileroko eta urteko txostenak
- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren azterketa kultura-programazioan eta kultura-sorkuntzan. Urtero sektore bat: Musika (2023); Antzerkia (2024)

II. ERANSKINA: KULTURKLIKeko EDUKIAK

Eranskin honetan jaso dira Kulturklik eta Kulturklik Pro atarietako eduki-motak (taulako hirugarren zutabea). Mota bakoitzerako, esteka bidez, benetako eduki baten adibide bat eskaintzen da; adibide osoenak aukeratzen saiatu gara, eduki-mota jakin batek izan ditzakeen informazio-unitate guztiak (ia) erakusteko.

1. Kulturklik atariko eduki-motak

Atala	Eduki-kategoria	Eduki-mota
Agenda	Ekitaldia	– Kontzertua – Antzerkia – Dantza – Zinema eta ikus-entzunezkoak – Erakusketak – Bertsolaritza – Jaialdia – Hitzaldia – Ikastaroa – Azoka – Lehiaketa – Jaiak – Ekitaldia/jardunaldiak – Bestelakoak
Albisteak	Albistea	– Albistea – Elkarrizketa[5] – Erreportajea
Sorkuntzak	Sorkuntza	– Antzerkia – Dantza – Diskoa – Liburua – Pelikula
Direktorioa[6]	Direktorioko baliabidea	– Entitatea (antzerki- eta dantza-sorkuntzen eduki erlazionatua)

[5] Elkarrizketak dira bai Bereziak –KULTURKLIK lantaldeak sortutako edukiak– bai beste iturri batzuetatik hartutako elkarrizketak; bi azpimota hauek bereizteko modu bakarra edukiaren *Iturria* eremuari erreparatzea da: Berezien iturria "Kulturklik" da.

[6] Berez, Kulturklik Pro atariko atal bat da Direktorioa, baina atal horretako eduki batzuk Kulturklik atarian erakusten dira, betiere beste eduki baten eduki erlazionatu bezala.

2. Kulturklik Pro atariko eduki-motak

Atala	Eduki-kategoria	Eduki-mota
Deialdiak	Deialdia	– Beka – Dirulaguntza – Egonaldia edo mentoring-a – Parte-hartzeko deialdia – Saria edo lehiaketa
Agenda profesionala	Ekitaldia	– Prestakuntza – Ekitaldia/Jardunaldia
Bereziak	Albistea	– Bereziak
Sorkuntzak	Sorkuntza	– Antzerkia – Dantza – Diskoa – Liburua – Pelikula
Argitalpenak	Albistea	– Argitalpena
Albisteak	Albistea	– Albistea
Direktorioa	Direktorioko baliabidea	– Ekipamendua – Entitatea